




EAEko ekonomiaren termometroa 86an kokatu zen




Azaroan, EAEko ekonomiaren termometroa 86 puntutan kokatu zen, hazkunde leuneko eremuan jarraituz. Zehazki, 2,4 puntu jaitsi da aurreko hilabetearen aldean, industriaren beherakadagatik eta inbertsioaren moderazioagatik. Hala ere, enpleguak bere joera positiboa luzatu du.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Aireportuetako bidaiariak ugaritu egin dira

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak
Urte bakoitzeko urtarriletik azarora. Milakoak




Aurtengo lehen hamaika hilabeteetan, 6,6 milioi desplazamendu baino gehiago egin ziren EAEko aireportuetan. Zifra hori %24,6 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean, eta aurtengoa serie historiko osoan lortutako kopuru handiena izan da.

Iturria: AENA.




KPI indizea %3,4an kokatu zen azaroan



Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken informazioaren arabera, **azaroan EAEko KPIaren urteko tasa hamarren bat murriztu zen eta %3,4an kokatu zen.** Bilakaera hori, beste behin ere, erregaien prezioen jaitsierak eta elikagaien garestitze txikiagoak eragin dute. Bestalde, azpiko inflazioaren gorakada %5,4tik %4,8ra apaldu zen, 2022ko maiatzetik izandako erregistrorik txikiena delarik.

Eratutako enpresen kopuruak gora egin du



Iturria: INE.

Aurtengo lehen hamar hilabeteetan EAEn eratu diren enpresen kopuruak %4,1 egin du gora aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, 2.621 sozietate berri eratu dira, 2020koa izan ezik aurreko urteetako erregistroen oso antzeko kopurua baita, baina baita 2014az geroztik jaso den altuena ere.